

Azpeitia

Denontzat

AZPEITIKO KLIMA ETA ENERGIA PLANA

ERANSKINA: EKINTZEN KARAKTERIZAZIO-FITXAK



Proiektuaren izena: **Azpeitiko Klima eta Energia Plana. Eranskina: ekintzen karakterizazio-fitxak.**

Bezeroa: **Azpeitiko Udala**

Proiektuaren idazlea: **IZADI 21 (Inguru 21, S.L.), LAIA Kooperatiba Elkarte Txikiarekin lankidetzan.**

Dokumentuaren data: **2025/12/19**

1. LE: UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA

1. 1 PROGRAMA: UDAL ERAIKINAK

Kodea	1.1.1	Ekintza	Udal kiroldegian energia eraginkortasunerako eta energia berriztagarrien ezarpenerako neurriak hartzen jarraitu.
Helburu Estrategikoa	1 LE: UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA		
Programa	UDAL ERAIKINAK		
Deskribapena	Kiroldegia energia kontsumo altuena duten udal-eraikinen zerrendan bosgarren postuan ageri da eta horregatik, garrantzitsua da udalaren energia trantsizioaren bidean ahalegin berezia egitea eraikin honen kontsumoa gutxitu eta eraginkortasuna hobetzeko. Horretarako, 2022ko ekainean udal kiroldegian B kalifikazio energetikoa lortzeko ezarri beharreko neurrien azterlana berreskuratuko da, bertan proposatzen ziren neurrien bideragarritasuna aztertu eta pixkanaka ezarriko dira: itxituren hobekuntza, argiteriaren eraginkortasuna hobetzea, berokuntza sistemaren aldaketa, aerotermiaren ezarpena, eta instalazio fotovoltaikoaren ezarpena, besteak beste.		
Arduraduna	Energia bulegoko teknikaria		
Lehentasuna	Altua	Aurreikusitako kostua (€)	Definitu gabeko kostua. Aurreikuspena: 3.000.000€-10.000.000€
GJH	7.- Energia irisgarria eta ez kutsagarria		
Oharrak	--		
Sektorea	Udal eraikinak	Arintzea/egokitzea	Arintzea

Kodea	1.1.2	Ekintza	Igerilekuan energia eraginkortasunean neurriak indartzea eta pausoak ematen jarraitzea.
Helburu Estrategikoa	1 LE: UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA		
Programa	UDAL ERAIKINAK		
Deskribapena	Igerilekua da energia kontsumo handiena duen udal-erakina eta beraz ezinbestekoa da energiaren arloan neurriak hartzea, kontsumoa gutxitu eta BGen isurpenak murriztu ahal izateko. Horretarako, 2021. urtean Udalak egindako auditoretzan jasotzen diren ondorengo neurriak eramango dira aurrera modu progresiboan: gasaren instalazioa aerotermitatik aldatzea, eremu komunetan eta aldageletan argientzako mugimendu sentsoreak ezartzea, eta barruko igerilekuko argiak sistema eraginkorren luminariengatik aldatzea. Hobekuntza horiez gain, 2022ko azaroan onartutako Azpeitiko Energia Jarduketarako Plan Orokorrean jasotzen den 1.4.4 ekintza ere aurrera eramango da: berogailu sistema erregulatzeko zentralita jartzea udal igerilekuan.		
Arduraduna	Energia bulegoko teknikaria		
Lehentasuna	Altua	Aurreikusitako kostua (€)	Definitu gabeko kostua. Aurreikuspena: 3.000.000€-10.000.000€
GJH	7.- Energia irisgarria eta ez kutsagarria		
Oharrak			
Sektorea	Udal eraikinak	Arintzea/egokitzea	Arintzea

Kodea	1.1.3	Ekintza	Udaletxeko energia eraginkortasunerako eta energia berriztagarrien ezarpenerako neurriak hartzen jarraitu.
Helburu Estrategikoa	1 LE: UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA		
Programa	UDAL ERAIKINAK		
Deskribapena	<p>Udaletxea herritarrentzako erreferentziatzeko espazioa izanik, energia trantsizioan eta klima aldaketaren arloko lanean eraikin adierazgarri honen kudeaketa eredugarria izan beharko da. Kontsumoari dagokionez, udaletxea Azpeitian gehien kontsumitzen duten 10 udal-eraikinen artean dago, zehazki zazpigarren postuan. Kontsumo hori gutxitzeko energia eraginkortasuna sustatzeko neurriak hartuko dira: energia aurrezpenean eta eraginkortasunean sakontzen jarraitzeko neurrien ezarpena eta horien jarraipena, bertan ekoiztutako energia berriztagarriaren autokontsumo ahalik eta handiena, langileen eta politikarien kontzientziaketa, baliabideen erabilera egokia/arduratsua, hondakinen ekoizpen eta kudeaketa jasagarria, etab.</p> <p>2022an Udalak egindako auditoretza energetikoan jasotzen den eraginkortasun energetikorako plangintzako lehenetsutako esku-hartze hauek egingo dira pixkanaka: barruko konfort termikoa lortzeko neurri bioklimatikoak hartzea eta kontsigna-tenperaturak berrikustea, faktura elektrikoaren optimizazioa egitea, leihoetako zirrikituak estaltzea, mugimenduaren detektagailuak ezartzea, egungo luminariak eraginkorrenengatik ordezkatzeko eta baldintza egokiak ezartzea. Neurrien diseinu eta ezarpenerako ezinbestekoa izango da kontsumoaren jarraipen jarraitua egitea, besteak beste, SIE programaren bidez.</p>		
Arduraduna	Energia bulegoko teknikaria		
Lehentasuna	Ertaina	Aurreikusitako kostua (€)	Definitu gabeko kostua. Aurreikuspena: 1.000.000€-3.000.000€
GJH	7.- Energia irisgarria eta ez kutsagarria		
Oharrak	Proposatutako hainbat ekintza martxan edo eginda daude; esaterako, instalazio fotovoltaikoaren instalakuntza eta energia garbia ekoizten, potentzien egokitzapena urtean behin egiten da, kontsumoen jarraipena hilabetero egiten da...		
Sektorea	Udal eraikinak	Arintzea/egokitzea	Arintzea

Kodea	1.1.4	Ekintza	Karmelo Etxegarai HH ikastolan, berokuntza, klimatizazioa eta energia berriztagarriak ezartzeko azterketa egin eta neurriak pixkanaka aurrera eramatea.
Helburu Estrategikoa	1 LE: UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA		
Programa	UDAL ERAIKINAK		
Deskribapena	<p>Haur Hezkuntzako Karmelo Etxegarai ikastetxean energia eraginkortasunerako neurrien ezarpena aztertzeko audiotoretza energetikoa abiapuntutzat hartuz. 2022ko audiotoretzan eraginkortasuna hobetzeko honako neurriak hartzea proposatu zen: konfort termikoaren hobekuntzarako neurriak, fakturaren analisia eta optimizazioa, leihoen zirrikituak konpontzea, luminariak efizienteagoengatik ordezkatzeko, galdarak ordezkatzeko eta instalazio fotovoltaiako baten ezarpena. Audiotoretzan ezarritako hobekuntza proposamenak kontuan hartuz eramango da aurrera ekintza hau eta bereziki Ikastolako klimatizazioa eta berokuntza sistemaren aldaketa eta energia berriztagarriak ezartzeko aukeren analisia sakonduko da eta datozen urteetan martxan jarri daitezkeen proiektuak definituko dira. 2026 urtean 2022ko audiotoretza berrikustea aurreikusten du udalak (gainerako udal eraikinen audiotoretzekin batera).</p> <p>Hezkuntza-zentro honetako klimatizazio eta berokuntza sistemaren azterketa 2024ko abenduan bukatu zen. Bestalde, eguzki-panelak instalatzeko azterketa bat ere burutu zen eta ondoren instalazio fotovoltaiakoa jarri zuen udalak 2025 urtean.</p>		
Arduraduna	Energia bulegoko teknikaria		
Lehentasuna	Altua	Aurreikusitako kostua (€)	Definitu gabeko kostua. Aurreikuspena: 1.000.000€-3.000.000€
GJH	7.- Energia irisgarria eta ez kutsagarria		
Oharrak	2025eko irailean ikastetxeko instalazio fotovoltaiakoa energia ekoizten hasi da.		
Sektorea	Udal eraikinak	Arintzea/egokitzea	Arintzea

1. LE: UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA

1.2 PROGRAMA: ARGITERIA PUBLIKOA

Kodea	1.2.1	Ekintza	Argiteria publikoko kuadroak eta luminariak pixkanaka aldatzen jarraitu, guztiak energia eraginkortasun altukoak izan arte.
Helburu Estrategikoa	1 LE: UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA		
Programa	ARGITERIA PUBLIKOA		
Deskribapena	Udalerriko argiteria publikoak Udalaren energia kontsumo totalaren % 22 inguru suposatzen du. 2030 urtera arte pixkanaka koadro guztiak aldatu eta LED sistemadun luminariak jarriko dira, energia kontsumoa eta ondoriozko kostuak murrizteko. 2022an egindako argiteria publikoaren auditoretza energetikoan proposatutako neurriak hartuko dira oinarri ekintza hau aurrera eramateko: luminariak garbitzea, landaredia kentzea eta bizitza baliagarria gainditzen duten lanparak ordeztzea, argien teknologia ordeztzea (LED), fluxua murrizteko sistema ezartzea.		
Arduraduna	Energia bulegoko teknikaria		
Lehentasuna	Altua	Aurreikusitako kostua (€)	Aurreikuspena: 1.000.000€-2.000.000€
GJH	7.- Energia irisgarria eta ez kutsagarria		
Oharrak	Honezkeroko gehien kontsumitzen duten 16 kuadroetatik 9 kuadroen materiala jaso eta Brigada aldatzen ari da.		
Sektorea	Argiteria publikoa	Arintzea/egokitzea	Arintzea

1. LE: UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA

1.3 PROGRAMA: UDAL IBILGAILUAK

Kodea	1.3.1	Ekintza	Udal langileek lan orduetan egiten dituzten herri barruko desplazamenduetan bizikleta sustatzeko neurriak ezartzea.
Helburu Estrategikoa	1 LE: UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA		
Programa	UDAL IBILGAILUAK		
Deskribapena	Udaleko langileek lan orduetan egiten dituzten desplazamenduen eta horien ezaugarrien azterketa egin eta horren arabera bizikletaz egin daitezkeenetan, garraio mota hori lehenetsi. Modu honetan, Euskadiko Jasangarritasun Energetikoaren 4/2019 legearen, Mugikortasun Jasangarriaren 11/2023 legearen eta klima-aldaketa eta trantsizio energetikoaren 1/2024 legearen printzipioekin bat egingo du Udalak, garraio modu jasangarri eta ez kutsakorrek sustatuz. 2030 urtera begira, beharrezkoa izango balitz, Udalak egun dituen hiru bizikletez gain, berriak erosi edo alokatzeko aukera mahaigaineratzea ere eskatzen du ekintza honek.		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	5.000 €
GJH	7.- Energia irisgarria eta ez kutsagarria		
Oharrak	Mankomunitateak beste hiru bizikleta hornitu dizkio udaleko langileek erabiltzeko (2025eko irailean)		
Sektorea	Udal ibilgailuak	Arintzea/egokitzea	Arintzea

Kodea	1.3.2	Ekintza	Automobil-parkea pixkanaka berritzea, erregai alternatiboak txertatuz.
Helburu Estrategikoa	1 LE: UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA		
Programa	UDAL IBILGAILUAK		
Deskribapena	Udalak eskuratzen dituen ibilgailuak elektrikoak edo erregai alternatiboa darabiltenak izatea bermatuko du. Ildo honetan, aipatu behar da Iraurgi Berritzenean koordinaziopean (Urola Erdiko Energia Mahaiaren ekimena), eskualdeko udaletako ibilgailuen ordezkatzeari buruzko lanketa bat egin zela eta berau aztertu eta Azpeitiako Udalari dagokionez ezartzen diren proposamen-sorta edo gomendioak aztertzea eta baloratzea interesgarria izango litzatekeela.		
Arduraduna	Ekonomia, Merkataritza eta Turismo Batzordeko lehendakaria.		
Lehentasuna	Ertaina	Aurreikusitako kostua (€)	50.000 €
GJH	7.- Energia irisgarria eta ez kutsagarria		
Oharrak	Konbustioiko ibilgailuren bat ordezkatzeko orduan ibilgailu elektrikoan erosten ditugu.		
Sektorea	Udal ibilgailuak	Arintzea/egokitzea	Arintzea

1. LE: UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA

1. 4 PROGRAMA: AZTERKETA ETA PLANGINTZA

Kodea	1.4.1	Ekintza	Eraikinen eta argiteria publikoaren auditoretzen eguneraketak egin																																																																																																																																								
Helburu Estrategikoa	1 LE: UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA																																																																																																																																										
Programa	AZTERKETA ETA PLANGINTZA																																																																																																																																										
Deskribapena	<p>70 kW edo gehiagoko potentzia termikoa duten udal eraikinetan auditoretza energetikoak egin beharko dira 4 urtean behin. Honakoak dira Azpeitian auditoretza behar duten eraikinak eta orain arte egindakoak aintzat hartuz 2030era begira egin beharrekoak:</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th rowspan="2">ERAIKINA</th> <th colspan="10">Auditoretza plana</th> </tr> <tr> <th>2022</th> <th>2023</th> <th>2024</th> <th>2025</th> <th>2026</th> <th>2027</th> <th>2028</th> <th>2029</th> <th>2030</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Udal Igerilekua</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>2026/08</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>Soreasu</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>2026/03</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>Izarraitz pilotalekua</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>2026/03</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>Udaletxea</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>2026/03</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>Karmelo Etxegarai Ikastola</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>2026/03</td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>Haur Eskola</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>2026/03</td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>Karmelo Etxegarai Ikastola</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>2026/03</td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>Lehen Hezkuntza</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>2026/03</td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>Enparan Dorretxea</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>2026/03</td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>Garmendipe futbol zelaia</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>2026/03</td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> <tr> <td>Udal Kiroldegia</td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td></td> <td>2026/08</td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> </tbody> </table> <p>Bestalde, udalerriko argiteria publikoan aparteko energia auditoretza egin beharko da 2027. urtean (edo 2023an egin zena berrikusi eta eguneratu -hau izan ohi da bideragarriena-), azkeneko eguneraketa 2023koa baita.</p>									ERAIKINA	Auditoretza plana										2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	Udal Igerilekua					2026/08					Soreasu					2026/03					Izarraitz pilotalekua					2026/03					Udaletxea					2026/03					Karmelo Etxegarai Ikastola						2026/03				Haur Eskola						2026/03				Karmelo Etxegarai Ikastola						2026/03				Lehen Hezkuntza						2026/03				Enparan Dorretxea						2026/03				Garmendipe futbol zelaia						2026/03				Udal Kiroldegia						2026/08			
ERAIKINA	Auditoretza plana																																																																																																																																										
	2022	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030																																																																																																																																		
Udal Igerilekua					2026/08																																																																																																																																						
Soreasu					2026/03																																																																																																																																						
Izarraitz pilotalekua					2026/03																																																																																																																																						
Udaletxea					2026/03																																																																																																																																						
Karmelo Etxegarai Ikastola						2026/03																																																																																																																																					
Haur Eskola						2026/03																																																																																																																																					
Karmelo Etxegarai Ikastola						2026/03																																																																																																																																					
Lehen Hezkuntza						2026/03																																																																																																																																					
Enparan Dorretxea						2026/03																																																																																																																																					
Garmendipe futbol zelaia						2026/03																																																																																																																																					
Udal Kiroldegia						2026/08																																																																																																																																					
Arduraduna	Energia bulegoko teknikaria																																																																																																																																										
Lehentasuna	Ertaina	Aurreikusitako kostua (€)			50.000 €																																																																																																																																						
GJH	7.- Energia irisgarria eta ez kutsagarria																																																																																																																																										
Oharrak	--																																																																																																																																										
Sektorea	Udal eraikinak eta argiteria			Arintzea/egokitzea			Arintzea																																																																																																																																				

Kodea	1.4.2	Ekintza	Udal eraikinen ziurtagiri energetikoetan jasotako neurriak progresiboki ezartzeko plangintza bat lantzea, 2030 urterako hainbat eraikinen kalifikazio energetikoa hobetzea lortzeko.	
Helburu Estrategikoa	1 LE: UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA			
Programa	AZTERKETA ETA PLANGINTZA			
Deskribapena	Dagokion udal eraikinen kalifikazio energetikoak egin beharko dira eta 2030. urterako B maila baina baxuagoa duten horiena hobetzeko plangintza bat diseinatu. Gaur egun eginda dauden udal-eraikinen ziurtagiri energetikoak eta bertan zehazten diren neurriak aztertuko dira eta horiek pixkanaka hobetzeko plangintza bat diseinatuko da.			
Arduraduna	Energia bulegoko teknikaria			
Lehentasuna	Ertaina	Aurreikusitako kostua (€)	20.000 €	
GJH	7.- Energia irisgarria eta ez kutsagarria			
Oharrak	Teknikoki zein ekonomikoki ez da bideragarria ikusten 2030 urterako legeak ezartzen duen helburua betetzea. Ondorioz, egingarria den planifikazio bat egin eta bera aplikatzea da ekintza honen helburua.			
Sektorea	Udal eraikinak	Arintzea/egokitzea	Arintzea	

2. LE: UDAL EKIPAMENDU ETA INSTALAZIOETAN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EZARPENA AREAGOTZEA

2.1 PROGRAMA: UDAL ERAIKINAK

ESKU3917cc26-f0f8-4afc-bec7-81b83a306813

Kodea	2.1.1	Ekintza	Energia berriztagarrien potentzialtasun azterketa berrikusi eta bideragarriak diren instalazioak egiteko plangintza definitu, indarrean dagoen legediak ezarritako helburuak betetzeko (tokiko administrazioaren kontsumoaren % 32ko edo gehiago ekoizpen berriztagarria izateko).
Helburu Estrategikoa	2 LE: UDAL EKIPAMENDU ETA INSTALAZIOETAN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EZARPENA AREAGOTZEA		
Programa	UDAL ERAIKINAK		
Deskribapena	Administrazio publikoek 2030 urterako euren kontsumo totalaren % 32a gertuko instalazio berriztagarrien bidez autohornitu beharko dute. Ildo horretan, 2022an idatzitako udal energia planean jasotako udal kiroldegiaeren autokontsumoko dimentsionamendu-txostena eta 2024. urtean egindako energia berriztagarrien potentzialtasun azterketa berrikusiko dira, eraikin eta ekipamendu publikoen potentziala aztertu eta bideragarriak diren instalazioak ezartzeko plangintza bat diseinatuko da, 2050 urtera begirakoa. Autokontsumitutako ehunekoari dagokionez, udal eraikinen, argiteria publikoaren eta ibilgailuen kontsumoak aztertu eta horien urteroko jarraipena egin beharko da. Gainera, energia-biltegitratze sistemak garatzeko analisiak eta proiektuak aurrera eramango dira energia berriztagarrien hedapena sustatzeko.		
Arduraduna	Energia bulegoko teknikaria		
Lehentasuna	Altua	Aurreikusitako kostua (€)	25.000 €
GJH	7.- Energia irisgarria eta ez kutsagarria		
Oharrak	Orain arte bezala udalak urteroko segimendua egiten du energia berriztagarrien hornidura ahalik eta handiena izateko. Gainera, instalazio fotovoltaikoen ekoizpen banaketa kontsumoaren arabera egokitzen da (autokontsumo kolektiboaren kasuan).		
Sektorea	Udal eraikinak	Arintzea/egokitzea	Arintzea

Kodea	2.1.2	Ekintza	Udalerriko ikastetxeetan eguzki-plaka fotovoltaikoak ezartzeko dagoen potentziala aztertu eta bideragarria den kasuetan instalazioak ezarri.
Helburu Estrategikoa	2 LE: UDAL EKIPAMENDU ETA INSTALAZIOETAN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EZARPENA AREAGOTZEA		
Programa	UDAL ERAIKINAK		
Deskribapena	<p>Udalerriko ikastetxeetako estalkietan eguzki plaka fotovoltaikoak instalatzeko dagoen potentzialtasunaren azterketa egingo da (2024 urtean Udalak udal eraikinetan energia berriztagarriak ezartzeko potentzialtasun azterketa egin bazuen ere, ez da ikastetxeetako estalkien egoera edo azterketarik barneratzen eta beraz, komeni da zehaztasun maila altuagoa lortzea). Azterketa horren ondorioetatik abiatuz, bideragarria den kasuetan proiektuak definitu eta aurrera eramango dira, kontsumo handiena eta jabetza publikoa duten ikastetxeak lehenetsiz.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Karmelo Etxegarai Ikastola (haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako eraikinak) - Azpeitiko Ikasberri Ikastola Kooperatiba Elkartea - Azpeitiko Iraurgi Ikastetxea 		
Arduraduna	Energia bulegoko teknikaria		
Lehentasuna	Ertaina	Aurreikusitako kostua (€)	25.000 €
GJH	7.- Energia irisgarria eta ez kutsagarria		
Oharrak	2030 arte ezin izango da instalazio fotovoltaikoen konfigurazioa (banaketa koefizienteak) aldatu EVEko dirulaguntzak arriskuan ez jartzeko, beraz, ez du merezi ordura arte azterketarekin hastea.		
Sektorea	Udal eraikinak	Arintzea/egokitzea	Arintzea

3. LE: UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA

3.1 PROGRAMA: ETXEBIZITZAK

Kodea	3.1.1	Ekintza	Herritarrei begirako sustapen neurriak aztertzea, aldiro berrikustea eta beharrezkoak diren egokitzapenak egitea, herritarrekin elkarlanean.
Helburu Estrategikoa	3 LE: UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA		
Programa	ETXEBIZITZAK		
Deskribapena	Udalerriko herritarrak sentsibilizatzea eta informatzea ezinbestekoa izango da energia trantsizioaren bidean eta udalak horretarako baldintza egokiak eskainiko ditu. Energia berriztagarrien instalazioak egitera bideratutako laguntzen berri emango die herritarrei, fiskalitate berdeari buruzko argibideak eta energiarekin lotutako zalantzak argitzeko zerbitzua eskainiko du, besteak beste, energia bulegoaren bidez.		
Arduraduna	Energia bulegoko teknikaria eta Ingurumen teknikaria		
Beste arduradunak	Komunikazioko arduraduna		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	7.- Energia irisgarria eta ez kutsagarria		
Oharrak	Energia bulegoa 2024ko maiatzean ireki zen herritarrei arreta zerbitzu zuzena eta doakoa eskaintzeko. Gainera, urtean zehar egiten diren ekintzen berri ematen zaie herritarrei hainbat eratan (udaleko webgunea, diptikoak).		
Sektorea	Etxebizitzak	Arintzea/egokitzea	Arintzea

Kodea	3.1.2	Ekintza	Herritarren energia berriztagarrien komunitateak sustatzen jarraitzea, herritarren eta merkataritza nahiz ostalaritza enpresa txikien arteko komunitateak ahalduntzeko.
Helburu Estrategikoa	3 LE: UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA		
Programa	ETXEBIZITZAK		
Deskribapena	Udaletik energia berriztagarrien komunitateak sustatu eta babestuko dira, bai herritarren artekoak eta baita merkataritza, ostalari edo industria guneetakoak ere. Horretarako, horien inguruko informazioa eskainiko zaie herritarrei energia bulegoaren bidez. Gainera, herriko energia komunitateen eta udalaren arteko lankidetzak sustatuko da, energia trantsizioaren arloan hainbat proiektu partekatu aurrera eramanez: informazio kanpainak, hitzaldiak, etab. Udalak indarrean dagoen legediak ezarritako autokontsumo mailak beteko balitu, estalki publikoak energia komunitateari lagatzea ere baloratu ahal izango da.		
Arduraduna	Energia bulegoko teknikaria		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	7.- Energia irisgarri eta ez kutsakorra		
Oharrak	--		
Sektorea	Etxebizitzak	Arintzea/egokitzea	Arintzea

3. LE: UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA

3.2 PROGRAMA: EKONOMIA JARDUERAK

Kodea	3.2.1	Ekintza	Herriko sektore ekonomiko ezberdinetan energia-eraginkortasuna eta gertu sortutako berriztagarrien ezarpena bultzatzen jarraitzeko neurriak eragileekin batera adostea.
Helburu Estrategikoa	3 LE: UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA		
Programa	EKONOMIA JARDUERAK		
Deskribapena	Udalerriko sektore ekonomikoak garrantzi handia du energia trantsizioan eta udalak eragile horien parte hartzea bultzatuko du, merkatari eta ostalariei energia bulegoaren eta bere funtzioen berri emanaz, ekonomia lehiakortasuneko dirulaguntzak mantendu eta indartuz, energia-mahaiarekin elkarlanean egin daitezkeen proiektuak bultzatuz, eskualde mailako proiektuetan aktiboki parte hartuz, etab.		
Arduraduna	Energia bulegoko teknikaria		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	100.000 €
GJH	7.- Energia irisgarri eta ez kutsakorra		
Oharrak	--		
Sektorea	Ekonomia jarduerak	Arintzea/egokitzea	Arintzea

4. LE: KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNTZEKO MUGIKORTASUN JASANGARRIKO ETA EKONOMIA ZIRKULARRERAKO POLITIKAK AURRERA ERAMATEA

4.1 PROGRAMA: MUGIKORTASUNA

Kodea	4.1.1	Ekintza	Azpeitiko Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planean jasotzen diren ekintzak aurrera eraman, garraioaren ondoriozko energia kontsumoa eta BEG isuriak gutxitzeko asmoz.
Helburu Estrategikoa	4 LE: KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNTZEKO MUGIKORTASUN JASANGARRIKO ETA EKONOMIA ZIRKULARRERAKO POLITIKAK AURRERA ERAMATEA		
Programa	MUGIKORTASUNA		
Deskribapena	Garraioaren sektorea da Azpeitiko energia kontsumoaren % 52aren erantzule eta ondorioz, sektore hori bera da Berotegi Efectuko Gas gehien isurtzen duena. Egoera horri aurre egiteko bidean, Azpeitiko Udalak mugikortasun jasangarria bultzatuko du, 2021ean onartutako planean jasotzen diren ekintzak progresiboki aurrera eramanaz, ekintza-planaren ezarpen-maila ebaluatuz eta beharrezkoa denean, planaren eguneratzea gauzatzuz, egoera berrietara egokitzeko gai izan dadin.		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria		
Lehentasuna	Ertaina	Aurreikusitako kostua (€)	2.000.000 €
GJH	3.- Osasuna eta ongizatea		
Oharrak	--		
Sektorea	Mugikortasuna	Arintzea/egokitzea	Arintzea

Kodea	4.1.2	Ekintza	Urola Erdiko Mugikortasun Plana indarrean jartzean bere edukia aztertu eta udalak parte hartze aktiboa izatea, eskualde mailako joan-etorrietan aukera jasangarriak ezarri ahal izateko.
Helburu Estrategikoa	4 LE: KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNTZEKO MUGIKORTASUN JASANGARRIKO ETA EKONOMIA ZIRKULARRERAKO POLITIKAK AURRERA ERAMATEA		
Programa	MUGIKORTASUNA		
Deskribapena	Urola Erdia eskualdeko mugikortasun jasangarrirako ekintza-planaren diseinua eskualdeko energia-mahaiak sustatu duen proiektuetako bat da. Lehenik eta behin, 2024 urtean eskualdeko mugikortasunaren inguruko diagnostikoa idatzi zen eta orain ekintza-planaren diseinua gauzatzen ari da. Plan honek eskualdeko herritarren joan-etorriak mugikortasun jasangarriaren ikuspegitik antolatu nahi ditu, sektore ezberdinetan mugikortasun jasangarriarekin bat datozen baliabideak eskainiz. Ildo honetan, ezinbestekoa ikusten da Azpeitiko Udalak plan honen garapen-mailaren inguruko jarraipena egitea eta baita bertan jasotako ekintzen ezarpenerako baliabideak erraztea.		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria eta energia teknikaria. Iraurgi Berritzen.		
Lehentasuna	Ertaina	Aurreikusitako kostua (€)	Eskualdeko Energia Mahaian adostuko da udal bakoitzak egin beharreko ekarpen ekonomiko zehatza.
GJH	11.- Hiri eta komunitate jasangarriak		
Oharrak	--		
Sektorea	Mugikortasuna	Arintzea/egokitzea	Arintzea

4. LE: KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNTZEKO MUGIKORTASUN JASANGARRIKO ETA EKONOMIA ZIRKULARRERAKO POLITIKAK AURRERA ERAMATEA

4.2 PROGRAMA: EKONOMIA ZIRKULARRA

Kodea	4.2.1	Ekintza	Udalerrian eta udalean bertan erabilera bakarreko plastikoak murriztera bideratutako lan-ildo bat abiaraztea.
Helburu Estrategikoa	4 LE: KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNTZEKO MUGIKORTASUN JASANGARRIKO ETA EKONOMIA ZIRKULARRERAKO POLITIKAK AURRERA ERAMATEA		
Programa	EKONOMIA ZIRKULARRA		
Deskribapena	Erabilera bakarreko plastikoek kalte handia eragiten dute ingurumenean eta hondakinen kudeaketan. Azpeitiko Udalak erabilera bakarreko plastikoak murriztera bideratutako lan-ildoak diseinatu eta abiaraziko du. Udalean ez ezik, udalerriko hainbat sektoretan ere lan egingo da mota horietako plastikoak gutxitzeko helburuarekin, bereziki merkataritzan eta ostalaritzan. Kanpaina desberdinak abiaraziko dira herritarren eta eragileen konpromisoa bilatu asmoz. Gainera, udalak sustatu edo babesten dituen ekimenetan horrelako plastikoen erabilera minimoa bermatuko da. Aurrekoaz gainera, eskualde mailan ere, Mankomunitatearekin lankidetzan, halako hondakinen prebentzioa eta berrerabiltzea bultzatzera zuzendutako proiektuak aurrera eramatea sustatuko da.		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	100.000 €
GJH	12.- Ekoizpen eta kontsumoa arduratsuak		
Oharrak	--		
Sektorea	Ekonomia zirkularra	Arintzea/egokitzea	Arintzea

Kodea	4.2.2	Ekintza	Erosketak eta kontsumo arduratsua eta tokikoa sustatzeko ekintzekin jarraitzea.
Helburu Estrategikoa	4 LE: KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNTZEKO MUGIKORTASUN JASANGARRIKO ETA EKONOMIA ZIRKULARRERAKO POLITIKAK AURRERA ERAMATEA		
Programa	EKONOMIA ZIRKULARRA		
Deskribapena	<p>Azken urteetan Azpeitian arlo honetan egindako lanarekin jarraituko da eta behar denean, halako ekimenak indartuko dira; hala nola:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 2018an berritutako azokari eta Elikaguneari babesa eta errefortzua eskainiz udaletik. - Eskolako 2030 Agendaren baitan kontsumo arduratsua eta elikadura jasangarria lantzen jarraituko da Ekoetxearekin elkarlanean. - Orokorrean herritarrek egiten dituzten erosketetan bertakoa eta garaikoa sustatzen lagunduko duten kanpainak abiaraziko dira udaletik eta bertako produktuak ekoizten dituzten ekoizleei babesa eskainiko zaie hainbat ekimen desberdin antolatuz Urkomerekin eta Elikaguneari elkarlanean. - 2025eko ekainean egindako iraunkortasun tailerra bezalako ekimenak antolatzen jarraituko da eta herritarren zein herriko eragileen partehartze zabala bilatuko da, komunikazio-bide eraginkorrenak bilatuz. 		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria		
Lehentasuna	Ertaina	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	12.- Ekoizpen eta kontsumoa arduratsuak		
Oharrak	--		
Sektorea	Ekonomia Zirkularra	Arintzea/egokitzea	Arintzea

Kodea	4.2.3	Ekintza	Konponketa eta berrerabilpena sustatzeko ekintzei jarraipena ematea, tokiko elkarte eta eragileekin lankidetzan.
Helburu Estrategikoa	4 LE: KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNTZEKO MUGIKORTASUN JASANGARRIKO ETA EKONOMIA ZIRKULARRERAKO POLITIKAK AURRERA ERAMATEA		
Programa	EKONOMIA ZIRKULARRA		
Deskribapena	Hondakinen kudeaketak suposatzen duen ingurumen inpaktua eta udalarentzat eragiten duen kostu ekonomikoa murrizteko, hondakinen sorkuntza murriztea ezinbestekoa da. Horregatik, hondakinen prebentzioa, berrerabilpen eta birziklatzea sustatzeko proiektuak aurrera eramango dira udaletik herriko eragile eta elkarteekin lankidetzan: Haur eta familientzako berrerabilpeneko tailer praktikoak, erabilera bakarreko produktuek ingurumenean eragiten dituzten kalteen azalpenak, kartel informatiboak, bigarren eskuko azokak, etab.		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	12.- Ekoizpen eta kontsumoa arduratsuak		
Oharrak	--		
Sektorea	Ekonomia zirkularra	Arintzea/egokitzea	Arintzea

Kodea	4.2.4	Ekintza	Elikagaiak alferrik galtzearen arazoari heltzea, intzidentzia aztertuz eta ibilbide-orri bat ezarri esparru hori udalerriko hainbat sektoreekin lantzeko.
Helburu Estrategikoa	4 LE: KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNTZEKO MUGIKORTASUN JASANGARRIKO ETA EKONOMIA ZIRKULARRERAKO POLITIKAK AURRERA ERAMATEA		
Programa	EKONOMIA ZIRKULARRA		
Deskribapena	<p>Udalerriko elikagaien xahutzearen azterketa egingo da arazoa dimentsionatu eta aurre egiteko neurriak diseinatu ahal izateko. Elikagai xahuketan garrantzia handiena duten eragileekin batera lan egingo da (ostalaritza, ikastetxeak, jangelak, elkarte gastronomikoak, etab.) eta egoera zaurgarrian dauden herritarrak izango dira lehentasuna elikagai horiek aprobetxatzeko orduan. Horretarako, Azoka plazan jarritako "zero-zabor hozkailua" bezalako proiektu eta ekimenak sustatuko dira.</p> <p>Gainera, Urkome Elikagaien xahuketaren aurkako Euskadiko plataformako kide dela baliatuz, plataforma horretako kide izateak dituen abantailetatik abiatu eta Azpeitirako ekimen posibleak definitu eta gauzatuko dira.</p>		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	12.- Ekoizpen eta kontsumo arduratsuek		
Oharrak	--		
Sektorea	Ekonomia zirkularra	Arintzea/egokitzea	Arintzea

Kodea	4.2.5	Ekintza	Hondakinen sorkuntzaren araberako zabor-tasa aldakorraren alde lan egitea.
Helburu Estrategikoa	4 LE: KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNTZEKO MUGIKORTASUN JASANGARRIKO ETA EKONOMIA ZIRKULARRERAKO POLITIKAK AURRERA ERAMATEA		
Programa	EKONOMIA ZIRKULARRA		
Deskribapena	Azpeitiko Udalaren hondakinen kudeaketa-kostuak eta tasaren bidez eskuratzen diren sarreraren analisia egin beharko da defizita kalkulatzeko eta hortik abiatuta, tasa eguneratu beharko da. Azterketan kontuan izan beharko da zein sektore edo bilketa mota den udalarentzat kostu handiena suposatzen duena eta sorkuntzaren araberako tasa diferentziatu eta justu bat (sortzez besteko hondakinen tasa) ezarri beharko da. Tasa berriek suposatzen duten aldaketaren jarraipena urtero egingo da, egokitze-beharrak antzeman eta ahalik eta hobekien zehazteko. Beraz, gehien sortzen duenak gutxiago sortzen dutenen aldean tasa garestiagoa izan beharko luke.		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria eta Mankomunitatea		
Lehentasuna	Altua	Aurreikusitako kostua (€)	100.000 €
GJH	12.- Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak		
Oharrak	--		
Sektorea	Ekonomia zirkularra	Arintzea/egokitzea	Arintzea

Kodea	4.2.6	Ekintza	Amiantoaren errolda egin eta erabilera publikoa duten eraikinei begirako ezabaketa-plana martxan jarri.
Helburu Estrategikoa	4 LE: KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNTZEKO MUGIKORTASUN JASANGARRIKO ETA EKONOMIA ZIRKULARRERAKO POLITIKAK AURRERA ERAMATEA		
Programa	EKONOMIA ZIRKULARRA		
Deskribapena	Udalerrian amianto duten instalazio eta kokalekuen errolda egitea eta ezabatzeko egutegi bat diseinatzea. Lehenengo fase batean Azpeitiko udalak udalerriko amiantoaren errolda egingo du eta udal eraikinetan ezabatzeko plana diseinatu eta abiaraziko du 2030 urteari begira; Diseinu horretan aintzat hartuko da instalazioen arrisku-maila eta herritarrekiko esposizioa eta ezabatzea horren arabera lehenetsiko da, arrisku handiena erakusten duten horietan esku-hartzea 2028 urtea baino lehen eginez. Errolda eta egutegia publikoak izango dira eta EAEko osasun, ingurumen eta lan arloko agintari eskudunei bidaliko zaizkie.		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria		
Lehentasuna	Ertaina	Aurreikusitako kostua (€)	30.000€
GJH	12.- Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak		
Oharrak	--		
Sektorea	Ekonomia zirkularra	Arintzea/egokitzea	Arintzea

Kodea	4.2.7	Ekintza	Udalak kontratatzen dituen zerbitzu eta produktuetan ingurumen ikuspuntua ezartzen dela bermatzea, udalaren eta bere hornitzaileen karbono-aztarna murrizteko.
Helburu Estrategikoa	4 LE: KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNTZEKO MUGIKORTASUN JASANGARRIKO ETA EKONOMIA ZIRKULARRERAKO POLITIKAK AURRERA ERAMATEA		
Programa	EKONOMIA ZIRKULARRA		
Deskribapena	<p>Ekintza hau aurrera eramateko orduan, besteak beste, horrela jardungo da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erosketa eta Kontratazio Berdean sakontzeko asmoaz, interesgarria litzateke Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen programarekin bat egitea baloratzea, gaikako lan taldeetan parte hartzeko, udalei IHOBek arlo honetan eskaintzen dien oinarriko aholkularitzaz haratago doan aholkularitza zehatzagoa jaso ahal izateko, etab. - Hondakin gutxi sortzen dituzten ondasun eta zerbitzuen eskaintza babestea. Udaletik kontratazioak egiterako orduan, hondakinen sorkuntza minimoa eta kudeaketa jasangarriena egiten duten produktu eta zerbitzuei lehentasuna ematea bermatuko da, udaleko sail ezberdinetan. Gainera, udalak antolatu, sustatu edo babesten dituen ekimenetan ere, hondakinen kudeaketa jasangarria bilatuko da, ingurumen inpaktua minimizatuz (azken honi dagokionez, interesgarria litzateke udalak lhobek sustatutako "Erronka Garbia" ekimenaren inguruko informazioa eskuratzea eta antolatzen dituen ekintzak horren arabera kudeatzeko pausoak ematea). - Udaletik kontratatzen diren zerbitzu eta produktuetan ingurumen ikuspuntua kontuan hartzen dela bermatzea. Hondakinen sorkuntza eta kudeaketa ez ezik, udalaren kontratazioetan ingurumen ikuspuntua barneratzen dela bermatu beharko da: ekipo efizienteenen alde egitea, erabilera bakarreko produktuak alde batera uztea, material jasangarriak lehenestea, etiketa ekologikoak kontuan hartzea, etab. Horretarako, Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Berdearen oinarriak eta bertan ezartzen diren irizpideak erabili ahal izango dira eta baita programarekin bat egitea baloratu ere. 		
Arduraduna	Kontratazioko teknikaria		
Lehentasuna	Altua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	12.- Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak		
Oharrak	--		
Sektorea	Ekonomia zirkularra	Arintzea/egokitzea	Arintzea

5. LE: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRIA PRESTATZEA

5.1 PROGRAMA: HIRI-PLANGINTZA

Kodea	5.1.1	Ekintza	Hirigintza-plangintzaren diseinuan eta haren garapenetan klima-aldagaia barneratzeko urratsak ematea.
Helburu Estrategikoa	5 LE: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRIA PRESTATZEA		
Programa	HIRI-PLANGINTZA		
Deskribapena	Azpeitiako HAPO 2013 urtean onartu zen. HAPOaren berrikuspenik aurreikusiko balitz, kontuan izan behar da 4/2019 Legeak eta 1/2024 Legeak betebeharrak zehatzak ezartzen dituztela energia jasangarritasuna eta klima-aldagaia hirigintza plangintzan ezartzerako orduan.		
Arduradun nagusia	Hirigintzako arduraduna		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	11.- Hiri eta komunitate jasangarriak		
Oharrak	--		
Sektorea	Udalerria	Arintzea/egokitzea	Egokitzea

Kodea	5.1.2	Ekintza	Udalerriko azpiegitura kritikoek klima-mehatxuen aurrean duten kalteberatasuna eta elkarren mendekotasuna aztertzea eta klima-aldaketatik eratorritako arriskuak gutxitzea zein horiek murriztera zuzendutako neurriak jasoko dituen plana landu.
Helburu Estrategikoa	5 LE: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRIA PRESTATZEA		
Programa	HIRI-PLANGINTZA		
Deskribapena	<p>Klima-aldaketaren aurrean udalerriko azpiegitura kritikoen zerrenda osatu eta horien zaurgarritasunaren azterketa egingo da; Analisi horretatik abiatuta, azpiegitura horiek babesteko neurriak diseinatu eta plangintza batean jasoko dira. <u>Plangintza horren baitan integratu beharko litzateke klima-aldaketari lotutako agertokiak kontuan hartuko dituen Larrialdietako Udal Plana eguneratzea.</u> Larrialdietarako udal planaren eguneratzean klima-aldaketaren ondoriozko arriskuak kontuan hartuko dira eta horien aurrean jokatzeko irizpideak ere barneratuko dira: ibai-uholdeak, bero-boladak, suteak, lubiziak, etab. Gainera, jada badauden protokoloak berrikustea eskatzen du ekintza honek, biodibertsitaterako babes eremuetan sute-arriskuaren kontrako protokoloa, esaterako.</p> <p>Bestalde, biodibertsitaterako intereseko eremuetan sute-arriskuen aurrean dagoen protokoloa berrikustea ere komeni da.</p>		
Arduraduna	Hirigintzako Ingeniaria		
Lehentasuna	Altua	Aurreikusitako kostua (€)	20.000 €
GJH	11.- Hiri eta komunitate jasagarriak		
Oharrak	--		
Sektorea	Udalerria	Arintzea/egokitzea	Egokitzea

Kodea	5.1.3	Ekintza	Ibaiertzeko eremuetan eta malda altuko ibarretan (errekastoak) gerta litezkeen uholde/lubizi bortitzen eragina aztertzea eta kalteberak diren eremuetan babes-elementuak sartzea
Helburu Estrategikoa	5 LE: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRIA PRESTATZEA		
Programa	HIRI-PLANGINTZA		
Deskribapena	<p>Azpeitiako klima eta energiari buruzko 2025 urteko diagnostikoan azaltzen den moduan, ibai-uholdeek hiri-ingurunean izan dezakeen inpaktua da udalerrian arrisku gehien erakusten duen inpaktu-katea. Azpeitiko ibaien artean uholde arrisku nabarmena erakusten duten ibaiak Urola ibaia eta Urrestilla-Ibaieder erreka dira, baita Errezil erreka ere Urrestilla-Ibaieder errekaekin bat egiten duen gunean. Gainera, mende amaierarako (2071-2100 epealdia) mehatxu honen eragina handiagoa izango da. Adierazgarria da mende erditik aurrera, agertoki klimatiko ezkorrean, udalerraren egokitzeko gaitasuna jaitsi egingo dela. Hori dela eta, Ura Euskal Agentziarekin elkarlana bultzatuz eta indarrean dagoen ibai-uholdeei buruzko plangintzarekin koordinatuz, ibaiertzeko eremuetan eta malda altuko ibarretan (errekastoak) gerta litezkeen uholde/lubizi bortitzen eragina aztertzean oinarritzen da ekintza hau. Azterketa sakonago batek prebentzio- eta babes-neurriak eraginkorki ezartzen lagun dezakeelako.</p>		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria		
Lehentasuna	Ertaina	Aurreikusitako kostua (€)	250.000 €
GJH	11.- Hiri eta komunitate jasagarriak		
Oharrak	BASOINSA enpresak azterketa egin du 2025ean.		
Sektorea	Udalerria	Arintzea/egokitzea	Egokitzea

Kodea	5.1.4	Ekintza	Bero-boladen aurrean biztanleria kalteberarentzat baliabide gisa jardun dezaketen babesleku klimatikoak identifikatu, egokitu edo prestatzeko orientabide orokorrak eskaini.
Helburu Estrategikoa	5 LE: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRIA PRESTATZEA		
Programa	HIRI-PLANGINTZA		
Deskribapena	Jakina da datozen urteetan klima-aldaketak tenperaturan izango duen eragina gero eta nabarmenagoa izango dela, muturreko tenperaturek eta gau tropikalek gora egingo dute eta bero-boladen intentsitatea, maiztasuna eta iraupena areagotu egingo da. Egoera horren aurrean ezinbestekoa da udalek egokitzapen neurriak hartzea herritarrek babesteko. Herriko barnealdeko zein kanpoaldeko gune freskoen mapa/katalogo bat egingo da, baldintza egokiak betetzen dituztela bermatuz eta herritarrei zabalduz. Proiektuaren hartzaile nagusiak herritar zaurgarrienak izango dira: haurrak, haurdun dauden emakumeak, hirugarren adineko pertsonak, arnas gaixotasunak dituztenak, etab.		
Arduraduna	Hirigintza		
Lehentasuna	Ertaina	Aurreikusitako kostua (€)	200.000 €
GJH	3.- Osasuna eta ongizatea		
Oharrak	--		
Sektorea	Herritarrak	Arintzea/egokitzea	Egokitzea

Kodea	5.1.5	Ekintza	Klima-arriskuak gizarte-zerbitzuek bultzatutako politiketan txertatzea, biztanleria ahulenari arreta berezia eskainiz.
Helburu Estrategikoa	5 LE: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRIA PRESTATZEA		
Programa	HIRI-PLANGINTZA		
Deskribapena	<p>Klima-aldaketaren ondoriozko kalteek bereziki eragingo dute herritar zaugarrienengan eta horregatik, horien aurreko erantzuna gizarte zerbitzuekin batera landuko da, laguntza eta babesak herritar horiei iristeko bide egokienak diseinatuz: bero-boladak, uholdeak, lehorteak, etab. Klima-arriskuak gizarte-zerbitzuek bultzatutako politiketan txertatzea, biztanleria ahulenari arreta berezia eskainiz.</p> <p>Larrialdi klimatikoa zerbitzu sozialen politiketan integratzea estrategia funtsezkoa da, klima-aldaketaren ondorioen aurrean ahulenak diren pertsonak babesteko. Hona hemen horretarako ideia batzuk, Gipuzkoako udalerrri edo bestelako eremuetan nola gauza daitekeen jasoaz:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Tokiko arrisku klimatikoaren ebaluazioa: Udalak udalerrian gerta daitezkeen arrisku klimatiko identifikatu eta ebaluatu behar ditu, bereziki ahulenak diren pertsonen begira (adibidez, bero-boladak, uholde arriskuak, ekaitzak). 2. Laguntza-programak ahulenak eta zaugarritasun-maila altuena duten gizarteko taldeentzako: besteak beste, adinekoei, diru-sarrera baxuak dituzten familiei, desgaitasuna duten pertsonen egokitutako proiektuak garatzea, klima-aldaketaren ondorioak modu larriagoan jasan ahal dituztenak. 3. Klima-aldaketa txertatzea gizarte-zerbitzuetan: Gizarte-zerbitzuek klima-aldaketari egokitzearen aldagaia barnatzea eta klimari egokitutako politikak diseinatzea, udalerriararen egituraren eraginak kontuan hartuta, eta baita ahulenak diren pertsonentzako arreta politiketan integratzea. 4. Erakundeen arteko lankidetzaren indartzea: Gizarte-zerbitzuen eta udaletako beste zerbitzu batzuen artean lankidetzaren sustatzea, hala nola osasun zerbitzuak, babes-zibila edo hirigintza, klima-aldaketari egokitutako zeharkako politikak diseinatzea. 5. Gizarte-zerbitzuetako langileen sentsibilizazioa eta prestakuntza: Gizarte-zerbitzuetako langileek klimaren arriskuen eragina eta klima-aldaketaren ondorioz ahulenak diren pertsonak identifikatzeko eta horientzako laguntza eman ahal izateko prestakuntza jasotzea. 6. Psikologia-zerbitzua eta emozioen kudeaketari buruzko laguntza eskaintzea: Klima-aldaketak estres, antsietate edo trauma eragin ditzake, batez ere ingurumen-kalteak jasaten dituzten pertsonetan. Horregatik, laguntza psikologikoa gizarte-zerbitzuen politiketan sartzea funtsezkoa da. 7. Justizia soziala eta klimatikoa integratzea: Egokitutako politika sozialak eta klimatikoak justizia sozialarekin uztartzea, eta pertsonen desberdintasun sozialak (gizarte desberdinkeriak) klima-aldaketaren aurreko erantzunean kontuan hartzea. 		

ESKU3917cc26-f0f8-4afc-bec7-81b83a306813

	Ondorioa: Arrisku klimatikoak Gizarte-zerbitzuen politiketan integratzea ikuspegi integral batekin egin behar da, prebentzioa, egokitzapena eta laguntza zuzena bultzatuz, ahulenak diren pertsonen beharrei erantzuteko. Gizarte-zerbitzuek zeharka lan egin behar dute beste udal-sail batzuekin, klima-aldaketak gehien kaltetutako pertsonen beharrei eraginkortasunez erantzutea ahalbidetuko duen egokitzapen-esparru bat sortuz.		
Arduraduna	Gizarte Zerbitzuetako teknikaria		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	3.- Osasuna eta ongizatea		
Oharrak	--		
Sektorea	Herritarrak	Arintzea/egokitzea	Egokitzea

5. LE: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRIA PRESTATZEA

5.2 PROGRAMA: UDALERRIAREN ERRESILENTZIA HANDITZEA

Kodea	5.2.1	Ekintza	Hirigunea berdatzea sustatzea, naturan oinarritutako konponbideak sustatuz, kostu txikiko neurriak, zeinen multifuntzionaltasuna eta baterako onurak frogatuta baitaude.
Helburu Estrategikoa	5 LE: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRIA PRESTATZEA		
Programa	UDALERRIAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA		
Deskribapena	<p>Naturan Oinarritutako Irtenbideek (NOK) Azpeitiko udalerrian izan dezaketen ezarpenaren analisia egitea, dagoen azpiegitura berdea identifikatuz eta beraz zabaltzeko aukera edo potentzialtasuna neurtuz. Berdegune berriak sortzea, daudenen mantenu jasangarria egitea, teilatu edo fatxada berdeak hirian zehar ezartzea, hiri-baratzeak sustatzea, lorezaintzan bertako espezieak txertatzea, etab. Ildo honetan, besteak beste, baliabide interesgarri hau kontsultarako erabiltzea interesgarria litzateke:</p> <p>➔ NOK PLATAFORMA</p>		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria		
Lehentasuna	Ertaina	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	13.- Klimaren aldeko ekintza		
Oharrak	--		
Sektorea	Udalerria	Arintzea/egokitzea	Egokitzea

Kodea	5.2.2	Ekintza	Klima-aldaketara egokitzeko irizpideak pixkanaka txertatzea udal-plangintzan eta, zeharka, beste politika sektorial batzuetan.
Helburu Estrategikoa	5 LE: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRIA PRESTATZEA		
Programa	UDALERRIAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA		
Deskribapena	<p>Azpeitiako HAPO 2013 urtean onartu zen. HAPOaren berrikuspenik aurreikusiko balitz, kontuan izan behar da 4/2019 Legeak eta 1/2024 Legeak betebeharrak zehatzak ezartzen dituztela energia jasangarritasuna eta klima-aldagaia hirigintza plangintzan ezartzerako orduan. Ondorioz, berotegi-efektuko gasen emisioak minimizatzeko lurraldearen antolamenduaren eta hirigintza-plangintzaren arloetan burutuko dituzten plangintzek eta neurriek klima-aldaketaren ondorioetara egokitu beharko dira.</p> <p>Klima-aldaketara egokitzea lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloko plangintza- eta kudeaketa-tresnetan integratzea errazteko, erreferentzia gisa hartu beharko da Eusko Jaurlaritzaren atarian geoerreferentziatutako informazioa, klima-aldaketaren arloan eskumena duen sailak emandako datu klimatikoak eskualdeka eta eguneratuta jasotzen dituenak.</p> <p>Aurrekoaz gainera, klima-aldagaia honakoetan ere barneratuko da: udal plangintzan eta araudietan (ordenantzak, kasu), udal aurrekontuetan, fiskalitatean, eta abar.</p>		
Arduraduna	Hirigintzako arduraduna		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	13.- Klimaren aldeko ekintza		
Oharrak	HAPOaren eguneraketarekin batera eramango da aurrera ekintza.		
Sektorea	Udalerrria	Arintzea/egokitzea	Egokitzea

Kodea	5.2.3	Ekintza	Udalerriko natura-guneen babesa, herri-bideen mantenua eta landatzen diren espezieen kontrola hobetzea.
Helburu Estrategikoa	5 LE: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRIA PRESTATZEA		
Programa	UDALERRIAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA		
Deskribapena	Klima-aldaketaren mehatxuaren aurrean duten garrantzia balioan jarriz, udalerriko eremu naturalen babesa bermatuko da udaletik eta baita herri-bideen mantenu egokia eta bertako espezieak landatzearen garrantzia. Adibide moduan, Izarraitzen lurren erosketa publikoa bultzatu liteke, bertako basoaren garapen jasangarria bermatu ahal izateko edo egurra ateratzeko lanetan bideen eta eremuaren egokitasuna bermatzeko irizpideak ezarri litezke, etab. Aipatutako babesak HAPOaren bidez erregulatzeko aukera aztertu beharko litzateke.		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	13.- Klimaren aldeko ekintza		
Oharrak	2025ean Izarraitzen lur-eremuak erosi dira.		
Sektorea	Udalerria	Arintzea/egokitzea	Egokitzea

Kodea	5.2.4	Ekintza	Udalerriko basoen kudeaketa jasangarria sustatzea.
Helburu Estrategikoa	5 LE: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRIA PRESTATZEA		
Programa	UDALERRIAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA		
Deskribapena	<p>Basoek garrantzi berezia dute klima-aldaketaren aurreko mehatxuan: CO₂a finkatzeaz gain, uraren erregulazioa ahalbidetzen dute, gainazaleko uren isuriari eutsiz eta uholde-arriskua murriztuz, tenperatura erregulatzeko gai dira, biodibertsitatearentzat ezinbesteko eremu dira, etab. Horregatik udaletatik horiek babesteko neurriak hartu behar dira. Jabetza publikoa duten baso eremuetan garapen jasangarria bultzatuko da etekin ekonomikoaren aurretik, landatutako espezieen egoera aztertu eta epe luzerako plangintza bat diseinatuko da, basoberritzeak nola eta zein espezierekin egin behar diren zehaztuko duena, udalerriak klima-aldaketaren aurrean agertzen duen erresilientzia handitu asmoz. Baso-eremu publikoek gain, jabe pribatuekin ere harreman kanalak zabalduko dira, basogintza jasangarriaren inguruko informazioa eskaini eta kudeaketa mota hori egitera bultzatuz.</p>		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria		
Lehentasuna	Ertaina	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	13.- Klimaren aldeko ekintza		
Oharrak	--		
Sektorea	Udalerria	Arintzea/egokitzea	Egokitzea

Kodea	5.2.5	Ekintza	Balio natural handiko eremuetatik ibilbide didaktikoak sustatzea.
Helburu Estrategikoa	5 LE: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRIA PRESTATZEA		
Programa	UDALERRIAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA		
Deskribapena	Udalerrian balio natural handia duten eremuetan ibilbide didaktikoak diseinatuko dira eta herritarrekin horietara bisitak antolatuko dira, horien garrantzia azpimarratu eta kontzientzia sortzeko balioko dutenak. Irteera horiek udalerriko hainbat eragileri zabalduko zaizkie: ikastetxeak, jubilatuen elkarteak, familiak, etab.		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	13.- Klimaren aldeko ekintza		
Oharrak	--		
Sektorea	Herritarrak	Arintzea/egokitzea	Egokitzea

Kodea	5.2.6	Ekintza	Hornidura- eta saneamendu-sistemen kudeaketa hobetzeko lanekin jarraitzea eszenatokiak aintzat hartuta.
Helburu Estrategikoa	5 LE: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRIA PRESTATZEA		
Programa	UDALERRIAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA		
Deskribapena	<p>Klima-aldaketak ekarriko dituen uholdeei aurre egiteko, uraren saneamendu sarean egon daitezkeen arriskuak antzemango dira eta horiek saihesteko neurriak diseinatu dira. Gainera, hornidura-sarearen egokitasuna aztertu eta bermatu beharko da, lehorte-garaien aurrean herritar ororen babesa bermatzeko. Aurrekoaz gain, besteak beste, honako jarduerak gauzatzea planteatzen da:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Sentsibilizazioa eta kontzientziaketa: Ura berrerabiltzearen garrantziaz jendartea kontzientziatzea eta hori udal esparruan nola bultzatu aztertzea. 2. Tokiko industrietan uraren berrerabilpena bultzatzea: Tokiko industriak, batez ere uraren erabilera handia dutenak, ura berrerabiltzeko sistemak ezartzera bultzatzeko neurriak hartzea. 3. Komunitatearen lankidetzaren sare bat sortzea: Herri sektorearekin eta erakunde pribatu eta publikoekin lankidetzaren sare bat bultzatzea, eta horren bidez uraren berrerabilpen estratégiak aztertzea. <p><u>Ondorioa:</u> Azpeitiako Udalak hainbat ekintza bultzatu ditzake ura berrerabiltzea sustatzeko, hala nola ur grisak eta euria jasotzeko sistemak ezartzea udal eraikinetan, teknologia berriak erabiltzea eta sentsibilizazio kanpainak egitea. Horrela, Azpeitia jasangarritasunaren alde aurrera egiten duen udalerririk bihurtuko da, eta uraren baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea bultzatuko du.</p>		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria		
Lehenetsuna	Ertaina	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	13.- Klimaren aldeko ekintza		
Oharrak	--		
Sektorea	Udalerria	Arintzea/egokitzea	Egokitzea

Kodea	5.2.7	Ekintza	Lorezaintzako praktikak klima-testuinguru berrira egokitzea.
Helburu Estrategikoa	5 LE: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRIA PRESTATZEA		
Programa	UDALERRIAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA		
Deskribapena	Udalerriko lorezaintza zerbitzua klima-aldaketaren egoerara egokitzea: herriko eremu konkretu batzuetan hazkuntza naturala babestea biodibertsitatea sustatzeko (polinizatzaileak erakartzea, etab.), bertako espezieak balioan jartzea eta lehenestea, ureztapenean ahalik eta gutxitzen xahutzeko teknikak hobestea, etab.		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	13.- Klimaren aldeko ekintza		
Oharrak	--		
Sektorea	Udalerria	Arintzea/egokitzea	Egokitzea

(

Kodea	5.2.8	Ekintza	Lehorreko ekosistemen arteko konektibitate ekologikoa erraztu dezaketen proiektuak abiarazi eta horiek lagundu.
Helburu Estrategikoa	5 LE: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRIA PRESTATZEA		
Programa	UDALERRIAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA		
Deskribapena	Horretarako, besteak beste, natura ondare eta biodibertsitateari buruzko araudia (9/2021 legea, adibidez), eta klima aldaketa eta trantsizio energetikoaren 1/2024 legearen 46. Artikuluan (“natura ondarea babestea”) ezarritako jarduerak aurrera eramango dira, udal eskumenen baitan. Horiez gain, udalaz gaindiko erakundeekin elkarlana bultzatzeko egitasmoak diseinatuko dira (Ihoberekin -natur ondarea eta klima aldaketaren ekimenak-, Naturklimatekin, etab.).		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	13.- Klimaren aldeko ekintza		
Oharrak	--		
Sektorea	Udalerria	Arintzea/egokitzea	Egokitzea

Kodea	5.2.9	Ekintza	Natura 2000 sarearen baitan kokatuta dagoen Izarraitz mendiaren ezaugarriak eta babesia mantendu
Helburu Estrategikoa	5 LE: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRIA PRESTATZEA		
Programa	UDALERRIAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA		
Deskribapena	Azpeitiko udalerraren mugaren barnean kokatzen den Izarraitzeko Natura 2000 sarean kokatutako gunea babestea. Horretarako, Izarraitz biodibertsitatearen kontserbaziorako eremu bezala izendatzeko eta bere kontserbaziorako neurriak onartzen dituen 217/2012 Dekretuan jasotako neurrien ezarpenean Udalak parte hartze aktiboa izateko baliabideak ezarriko dira, eskumena duten gainerako erakundeekin elkarlanerako bideak aztertuz eta aurrera eramanez.		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	13.- Klimaren aldeko ekintza		
Oharrak	--		
Sektorea	Udalerria	Arintzea/egokitzea	Arintzea eta Egokitzea

Kodea	5.2.10	Ekintza	Industria guneak naturalizatzeko edo berdatzeko aukeren inguruko azterketa bat aurrera eraman.
Helburu Estrategikoa	5 LE: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRIA PRESTATZEA		
Programa	UDALERRIAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA		
Deskribapena	Udalerriko 7 industria-guneetan (Larrañaga, Antzibarrena-Orendaundi, Landeta, Arretxe, Arcelor, Corrugados, Basarte, Anardi, Lasao) Naturan Oinarritutako Soluzioak ezartzeko azterketa egingo da eta bideragarria den kasuetan halakoak ezartzeko aukerak inplikaturako enpresekin baloratuko dira, udala eta enpresen arteko proiektu partekatu posibleak garatu ahal izateko (EJren ingurumeneko dirulaguntzak, GFaren ingurumeneko dirulaguntzak, Naturklima Fundazioarenak, ...) edo udalak sor ditzakeen dirulaguntzen bidez finantza daitezten: zuhaitz landaketa berriak, drainatze jasangarriko sistemak, fatxada edo teilatu berdeak, etab.		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	15.000€-30.000€
GJH	13.- Klimaren aldeko ekintza		
Oharrak	--		
Sektorea	Udalerria	Arintzea/egokitzea	Arintzea eta egokitzea

Kodea	5.2.11	Ekintza	Udalerriko lehen sektoreak klima-aldaketaren eraginez izan ditzakeen kalteak kontuan hartuz sektorea babesteko neurriak ezartzea Urkomerekin elkarlanean.
Helburu Estrategikoa	5 LE: KLIMA-AGERTOKIETARA EGOKITUTAKO UDALERRIA PRESTATZEA		
Programa	UDALERRIAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA		
Deskribapena	Azpeitiko klima eta energiaren diagnostikoan ondorioztatu ahal izan zen lehorteen eraginez nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak kaltetuak izateko arriskua altua dela Azpeitian. Izan ere, aztertutako inpaktu-kateen artean bigarren arrisku indize handiena duena da. Horregatik, etorkizunera begira sektore hori babestea ezinbestekoa izango da, klima aldaketaren ondorioz egon daitezkeen lehorreak, uraren eskuragarritasuna, izurriteak, etab. ekiditeko eta kalteak murrizteko neurriak hartuko dira, Urkomerekin batera.		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria eta Urkome landa garapen elkarteak.		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	13.- Klimaren aldeko ekintza		
Oharrak	--		
Sektorea	Udalerria	Arintzea/egokitzea	Arintzea eta egokitzea.

6. LE: UDALERRIKO KLIMA-ERRONKEI ERANTZUTEKO UDAL GOBERNANTZA- EREDU BERRI BAT SUSTATZEA

6.1 PROGRAMA: UDAL BARRUKO EGITURA SENDOTU

Kodea	6.1.1	Ekintza	Klima-aldaketa eta energiaren jasangarritasunari dagokion udal barneko lantaldea sortu, 1/2024 Legeak jasotzen duen udal batzordearen funtzioak izan ditzan.
Helburu Estrategikoa	6 LE: UDALERRIKO KLIMA-ERRONKEI ERANTZUTEKO UDAL GOBERNANTZA-EREDU BERRI BAT SUSTATZEA		
Programa	UDAL BARRUKO EGITURA SAKONDU		
Deskribapena	Jasangarritasun Energetikoaren 4/2019 legeak udaletan jasangarritasun energetikoaren batzordeak sortzeko betebeharra ezarri zuen lehen aldiz eta Euskadiko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 1/2024 legeak betebehar hori mantendu eta eguneratu egin zuen, klima-aldagaia ere barneratzeko. Ondorioz, udal mailako batzorde edo organo baliokide hori energia eta klima-aldaketari buruzkoa izan behar da eta bere funtzioak 4/2019 Legean zein 1/2024 Legean zehazten dira.		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria eta arloko udal hautetsia.		
Lehentasuna	Altua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	16.- Bakea, justizia eta instituzio sendoak		
Oharrak	Hirigintza eta ingurumeneko teknikariez gain, klima-aldaketaren alderdi ezberdinekin zerikusia duten beste sailtako arduradunek ere parte hartzea komeni da (hala nola: gizarte zerbitzuak -energia zaurgarritasuna/pobrezia, bero-boladek osasunean eragindako inpaktuak, ...-) eta Udaltzaingoa.		
Sektorea	Udala	Arintzea/egokitzea	Arintzea eta Egokitzea

Kodea	6.1.2	Ekintza	Urtero Udalaren eta udalerriko sektoreen Berotegi Eftukoko Gasen isurpenen kalkulua egitea, energia eta klima-aldaketaren ekintza-planaren ezarpenetik aurrera isurpenen murrizketa gertatzen den behatzeko eta dagozkion neurriak aplikatzeko.
Helburu Estrategikoa	6 LE: UDALERRIKO KLIMA-ERRONKEI ERANTZUTEKO UDAL GOBERNANTZA-EREDU BERRI BAT SUSTATZEA		
Programa	UDAL BARRUKO EGITURA SAKONDU		
Deskribapena	Udalak energia eta klima-aldaketaren arloan egiten dituen hobekuntzak eta aurrera begirako neurriak zehazteko interesgarria izango da urteroko energia kontsumoen eta BEG isurpenen kalkulua egin eta joerak aztertzea. Lan horrek, klima eta energia planaren ezarpenaren ebaluazio kuantitatiboa egiteko balioko du eta baita araudi ezberdinetan jasotako xedeak (helburu kuantitatiboak) betetzeko bidean udalerrri mailan nahiz udal jardueran zer nolako bilakaera gertatzen ari den aztertzeke ere. Horrek guztiak planaren eguneraketa partzialak egitea ahalbidetuko du (hau da, errealitatera egokitzeke aukera mahai gainean jartzeko aukera eskainiz).		
Arduraduna	Energia teknikaria eta Ingurumen teknikaria		
Lehentasuna	Ertaina	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	16.- Bakea, justizia eta instituzio sendoak		
Oharrak	--		
Sektorea	Udala	Arintzea/egokitzea	Arintzea

Kodea	6.1.3	Ekintza	Klima eta energiaren ekintza-planaren urteko ebaluazioa ahalbidetu eta bertako ondorioetatik abiatuz urte batetik besterako jardueren programazioa landu.
Helburu Estrategikoa	6 LE: UDALERRIKO KLIMA-ERRONKEI ERANTZUTEKO UDAL GOBERNANTZA-EREDU BERRI BAT SUSTATZEA		
Programa	UDAL BARRUKO EGITURA SAKONDU		
Deskribapena	Behin klima eta energiaren plana onartuta, bi urtean behin ezarpen-mailaren balorazioa egin eta urtez urte garatu beharreko ekintzak adostean datza. Planaren ezarpen-maila ezagutuz urtetik besterako jarduerak programatzea eta udal aurrekontura lotzera errazagoa gertatzen da.		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	16.- Bakea, justizia eta instituzio sendoak		
Oharrak	--		
Sektorea	Udala	Arintzea/egokitzea	Arintzea eta Egokitzea

Kodea	6.1.4	Ekintza	Ingurumenaren arloko fiskalitatean sakondu, energia-trantsizioan, natur baliabideen erabilera arduratsuan eta hondakinen murrizketa sustatu daitezkeen neurri fiskalak bultzatuz.
Helburu Estrategikoa	6 LE: UDALERRIKO KLIMA-ERRONKEI ERANTZUTEKO UDAL GOBERNANTZA-EREDU BERRI BAT SUSTATZEA		
Programa	UDAL BARRUKO EGITURA SAKONDU		
Deskribapena	<p>Ingurumenarekin udalak duen konpromisoa ordenantza fiskaletan ere islatuko da, ikuspuntu hori aintzat hartzen duten herritarrak saritzeko bide bezala: energia trantsizioa, natur-baliabideen erabilera, hondakinen murrizketa, etab. aintzat hartuz.</p> <p>Aurrekoaz gain, udalaz gairik zerga-politikari buruzko informazio praktikoa sektore ezberdinetako eragileei bidaltzea interesgarria izango litzateke (Teknologia Garbien Euskadiko katalogoan barneratutako ekipoak edo irtenbideak eskuratzeagatik sozietateen gaineko zergan kenkariak, etab.).</p>		
Arduraduna	Ingurumen teknikaria eta kontu-hartzailea.		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	16.- Bakea, justizia eta instituzio sendoak		
Oharrak	--		
Sektorea	Udala	Arintzea/egokitzea	Arintzea

Kodea	6.1.5	Ekintza	Eraginkortasun energetikoari eta eraikinetan energiaren erabilera arduratsuari eta klima-aldaketaren arloko udal eskumenekin zerikusia duen prestakuntza-saioak eskaintzea udal-langileei nahiz udal-hautetsiei.
Helburu Estrategikoa	6 LE: UDALERRIKO KLIMA-ERRONKEI ERANTZUTEN UDAL GOBERNANTZA-EREDU BERRI BAT SUSTATzea		
Programa	UDAL BARRUKO EGITURA SAKONDU		
Deskribapena	Azpeitiko Udala trantsizio energetikoaren eta klima aldaketaren arloan eredugarri izateko bidean, udal-langileak eta hautetsiak formatzea garrantzitsua izango da. Alde batetik, energia eraginkortasunaren gakoak eta eraikinetan energia aurrezteari loturiko kontzeptuak landuko dira langile eta arduradunekin eta bestetik, klima-aldaketaren eta energiaren arloko legeek udalentsat ezartzen dituzten betebeharren berri ere emango zaie, beren jardunetan txertatu ahal izateko.		
Arduraduna	Udal idazkaria eta energia teknikaria.		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	16.- Bakea, justizia eta instituzio sendoak		
Oharrak	--		
Sektorea	Udala	Arintzea/egokitzea	Arintzea

Kodea	6.1.6	Ekintza	Udal aurrekontuetan energia trantsizioaren eta klima-aldaketaren ikuspegia barneratzeko lanketa abiaraztea, bereziki aurrekontuen diseinu fasean horietan eragin positiboa duten jarduerak identifikatzeko eta potentziazten laguntzeko.
Helburu Estrategikoa	6 LE: UDALERRIKO KLIMA-ERRONKEI ERANTZUTEKO UDAL GOBERNANTZA-EREDU BERRI BAT SUSTATZEA		
Programa	UDAL BARRUKO EGITURA SAKONDU		
Deskribapena	Udalerriko aurrekontuen diseinu fasean trantsizio energetikoan eta klima aldaketari aurre egiten lagunduko duten partiden identifikazioa egin eta urtez urte kopuru horrek gora egin dezan landuko da, zeharkako proiektuetatik arlo horretan zuzenean eragingo duten proiektuetara arte.		
Arduraduna	Kontu-hartzailea eta udal taldea.		
Lehentasuna	Ertaina	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	16.- Bakea, justizia eta instituzio sendoak		
Oharrak	--		
Sektorea	Udala	Arintzea/egokitzea	Arintzea eta Egokitzea

6. LE: UDALERRIKO KLIMA-ERRONKEI ERANTZUTEKO UDAL GOBERNANTZA- EREDU BERRI BAT SUSTATZEA

6.2 PROGRAMA: HERRITARREI ZUZENDUTAKO KOMUNIKAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA INDARTU

Kodea	6.2.1	Ekintza	Herritar guztiek energia trantsizioa eta klima-aldaketaren gainean duten ezagutza areagotzeko formakuntza eta sentsibilizazio kanpainak antolatu.
Helburu Estrategikoa	6 LE: UDALERRIKO KLIMA-ERRONKEI ERANTZUTEKO UDAL GOBERNANTZA-EREDU BERRI BAT SUSTATZEA		
Programa	HERRITARREI ZUZENDUTAKO KOMUNIKAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA INDARTU		
Deskribapena	Herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak eta jardunaldiak diseinatuko dira energia trantsizioaren eta klima aldaketaren garrantziaz jabetu eta modu indibidual zein kolektiboan arazo horiei heltzeko hartu daitezkeen neurrien berri emanaz.		
Arduraduna	Energia bulegoko teknikaria		
Lehentasuna	Ertaina	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	13.- Klimaren aldeko ekintza		
Oharrak	--		
Sektorea	Herritarrak	Arintzea/egokitzea	Arintzea eta Egokitzea

Kodea	6.2.2	Ekintza	Udalaren izaera eredugarria bultzatzeko asmoz, udal energia eta klima-aldaketaren planaren inguruko garapenaren berri aldiro ematea.
Helburu Estrategikoa	6 LE: UDALERRIKO KLIMA-ERRONKEI ERANTZUTEKO UDAL GOBERNANTZA-EREDU BERRI BAT SUSTATZEA		
Programa	HERRITARREI ZUZENDUTAKO KOMUNIKAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA INDARTU		
Deskribapena	Energia eta klima plana onartzen denean eta urtez urteko jarraipena egiten denean herritarrei modu garbi eta ulerkorrean helaraziko zaizkie egindako aurrerapausoak eta burututako ekintzen nondik norakoak. Gainera, lanketa horiek egiteko behar izan den kostu ekonomikoa ere adieraziko da, gardentasuna ikusaraziz.		
Arduraduna	Ingurumen zinegotzia		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	16.- Bakea, justizia eta instituzio sendoak		
Oharrak	--		
Sektorea	Udala	Arintzea/egokitzea	Arintzea eta Egokitzea

Kodea	6.2.3	Ekintza	Fiskalitate berdean indarrean dauden hobari fiskalen inguruko informazioa sektore ezberdinen eskura jarri, komunikaziorako bide ezberdinak erabiliz.
Helburu Estrategikoa	6 LE: UDALERRIKO KLIMA-ERRONKEI ERANTZUTEKO UDAL GOBERNANTZA-EREDU BERRI BAT SUSTATZEA		
Programa	HERRITARREI ZUZENDUTAKO KOMUNIKAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA INDARTU		
Deskribapena	<p>Ordenantza fiskaletan ezartzen den ingurumen ikuspuntuako fiskalitatearen berri emango zaie sektore ezberdinei, eskura dagoen informazioa modu eraginkorrean eta hainbat komunikazio bide erabiliz zabalduz: udaletxearen sare-sozialak, eragile ezberdinekiko zuzeneko harremanak, kartelak, informazio puntuak, etab.</p> <p>Helburu orokorra: Udalerriko sektore ezberdinen eskura jartzea trantsizio energetikoarekin, baliabideen aurrezpenarekin eta hondakinen kudeaketarekin lotutako zerga berdeen inguruko hobari fiskalei buruzko informazio garbia, eskuragarria eta eguneratua, horien erabilera sustatzeko helburuarekin.</p>		
Arduraduna	Ingurumen zinegotzia		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	16.- Bakea, justizia eta instituzio sendoak		
Oharrak	--		
Sektorea	Herritarrak	Arintzea/egokitzea	Arintzea eta Egokitzea

Kodea	6.2.4	Ekintza	Etxebizitza-eraikinen birgaitzean energia-eraginkortasuna sustatzen eta energia berriztagarrien ezarpena bultzatzen duten neurrien berri ematea.
Helburu Estrategikoa	6 LE: UDALERRIKO KLIMA-ERRONKEI ERANTZUTEKO UDAL GOBERNANTZA-EREDU BERRI BAT SUSTATZEA		
Programa	HERRITARREI ZUZENDUTAKO KOMUNIKAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA INDARTU		
Deskribapena	Eraikinen birgaitze eta eraginkortasun energetikoa zein instalazio berriztagarrien ezarpenerako ematen diren laguntzei eta hobariei eutsiko zaie, beharrezkoa bada laguntzen kopurua edo ehunekoa birplanteatuz, maiztasunez berrikusiko dira eta egoeraren arabera pizgarri berriak sortzea aztertuko da.		
Arduraduna	Energia bulegoko teknikaria		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	11.- Hiri eta komunitate jasagarriak		
Oharrak	--		
Sektorea	Herritarrak	Arintzea/egokitzea	Arintzea

6. LE: UDALERRIKO KLIMA-ERRONKEI ERANTZUTEKO UDAL GOBERNANTZA- EREDU BERRI BAT SUSTATZEA

6.3 PROGRAMA: HERRITARRAK AKTIBATZEKO PARTE-HARTZE BIDEAK AZTERTU ETA HORIEK SUSTATU

Kodea	6.3.1	Ekintza	Parte-hartze mekanismo ezberdinetan klima-aldaketaren aldagaia txertatzeko bideak aztertu eta eragile ezberdinek udalarekin batera halako politikak definitzeko bideak ezarri.
Helburu Estrategikoa	6 LE: UDALERRIKO KLIMA-ERRONKEI ERANTZUTEKO UDAL GOBERNANTZA-EREDU BERRI BAT SUSTATZEA		
Programa	HERRITARRAK AKTIBATZEKO PARTE-HARTZE BIDEAK AZTERTU ETA HORIEK SUSTATU		
Deskribapena	Energia eta klima gaietan herritarrek duten parte-hartzea sendotzeko bideak diseinatuko dira, eragile ezberdinek izan dezaketen ekarpena aintzat hartuz eta beraiekin batera ildo horretako politikak definituko dira.		
Arduraduna	Energia bulegoko teknikaria eta Ingurumen teknikaria		
Lehentasuna	Baxua	Aurreikusitako kostua (€)	Barne-baliabideak
GJH	16.- Bakea, justizia eta instituzio sendoak		
Oharrak	--		
Sektorea	Herritarrak	Arintzea/egokitzea	Egokitzea



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025PLAN0030-EKINTZA/EKINTZA (AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA - AZPEITIKO UDAL/